

Manex ERDOZAINZI

HERRIZ HERRI

NOR NAIZ...


Ni Nafarroa Beherekoa naiz, Oztibarre eskualdekoa, Xuberoa aldera. Nere sort-herria deitzen da Ibarrola edo, aspaldian erraten dugun bezala : Ibarla. Gaur egun bat biztanle ez duen herri ttipi hontan iragan dut nere haur denbora, orduko Ipar Euskal Herriko baserri mugetan eta giroan.

Nere etxeokak eta herritarrak laborantzatik bizi ziren eta bizimolde frango dorpea zeramaten, zeren, tresna modernorik ez izanez, indarkako lan asko bazuten egiteko urte buru batetik bestera : ene aita-amak holaxet higatu ziren eta hil. Dena den zortzi haur, zortziak mutikoak, hazi eta altxatu zituzten zer bait gisaz.

Gure haur mundua zen sort-herriko mendiek mugatzen zutena : mendiari gora joan eta urrunago ikusten genuen, baina halere gure haur mundua oso ttipia zen. Ez genuen irratirik are gutiago telebistatik : herritarrak genituen gure irratia eta gure telebista. Euskara zen gure komunikabidea eta beraz gure hizkuntza lehena eta bakarra. Jendeak, kaba-leak, oiha-otarretako zuhaitz eta landareak, hots ikusi edo entzun gauzak izendatzeko nere lehen hitzak eta bakarrak izan dira euskarazkoak : horrela jendeak eta gauzak, ikusten, entzuten eta hunkitzen nituenak oro euskararekin sartu zitzaizkidan barruraino eta hor, barruan, segitu zuten beren bizitza ; denek naute hazi, mamitu eta parte egin naitzen bezalako hau.

Nahi-ta-ez, lau urtetan abiatu nintzen frantses eskolara joaten eta, hasian hasirik, nere istudio guziak egin behartu zaizkit frantses eskoletan, hameka urtetarik hara Euskal Herritik kanpo. Laster, marrumaz eta aztapar-ka euskara hasi zitzaidan barruan : honela euskarak bere bidea zilatatu zuen nere gogobihotzetan eta hasi nintzen ikasi kantuak lagunekin kantatzen eta poematxo batzu idazten...

Horiek hola, gaur, hemen zuekin gertatzen naiz Udako Euskal Unibertsitatean. Herabe poxi bat izanagatik elkar ez dugulakoan oraino ezagutzen, aitortu behar dut hezur mamiraino hartzen nauen zorion bat sendi dutala halere bereizten gaituzten mugak izitzeak hausten ari dituelakotz eta hautsiko ditu.



ITXAROPENA

Itxaropena...
Itxaropena...

Ez dut nahi
Ene Itxaropenak
Uka
Edo
Arbuia dezan
Aldamenean

Ene lagunak daraman burruka :
Bere kexuekin
Bere hasarreekin
Bere garrasiekin
Gaua eta eguna
Ilargia eta eguzkia...
Delakotz !

Ene lagunak daraman burruka :
Bere goseetan
Bere egarrietan
Bere nekaldietan
Ogia eta arnoa
Irria eta kantua...
Delakotz !

Ene lagunak daraman burruka :
Bere herrikideentzat
Bere familiakoentzat
Bere adiskideentzat
Barkapena eta zuzentasuna
Zoriona eta maitasuna...
Delakotz !

Ene lagunak daraman burruka
Espero dut
Egunero
Bizia
Dakarkigulakotz...

Itxaropena...
Itxaropena...

Lur busti epelean hozitu hazia
Lanbroetan jeiki den eguzki flakoa
Ihintzean pizkortu goizeko lilia
Hautsaren pean gorde itxindu bizia...

Itxaropena...
Itxaropena...

IBARLAKO SEME

Ibarlako seme frantxiskanoaren bidai bete...

Mañex, 1934-eko uztailaren 15-an sortu zen Ibarla herrian, Pekoetxean. Zortzi haurride ziren familian. Zortziak mutikoak. Eta Mañex haurrideetan seigarrena. Bederatzi urte zituelarik etorri zen Donapaleuko frantxiskanoetarat eta hemen hasi egun batez frantxiskano izaiterat helduko zuten ikasketak.

Mutiko argia zen, Mañex, eta langilea. 17 urtetan hartuko du frantxiskano arropa Pabeko konbentuan. Eta urte berean, 1951-ean, nobiziadako egiterat Quimper-er at joanen da. Lendabiziko botoak egin eta, erran nahi baita frantxiskotar anai gisa lehen engaiamendua hartu eta, joanen da Beziers-eratik filosofia ikasterat. Handik Paberat eta Orsay-eratik teologia egiterat.

23 urte bete berriak zituen LARRART Apezpiku misionest ohiak apeztu zuelarik 1957-ko uztailaren 20-an Donapaleuko frantxiskanoen elizan. Apeztu eta urte bat eginen du oraindik Parisen, Pastoral ikasketak egiten. Eta gero bere nagusiek Donapaleurat igorriko dute, eta hemen predikari gisa aintz herri kurrituko du. Euskaldun Gazteriaren omonierren laguntzaile suhar eta segurra bilakatuko da denbora berean.

1963-an Akitania Probitziako Frantxiskanoen kapituluan edo biltzarre nagusian, probintziako idazkari edo sekretario eginen dute.

1965-an Nagusiek Pariserat igorriko dute estudioen egiterat. Eta ikasketak bururatu eta Tolosarat frantxiskano gaien maisu eta artzazele.

1969-an beste zerbitzu bat gehiago galdegina izanen zaio; ikasleen arduradun segituz, konbentuko nagusi edo guardiano izendatuko dute.

1978-an Probitzial izendatua da. Erran nahi baita Akitaniako Probitziako frantxiskano guzien buru edo nagusi.

Horra frantxiskano mailan edo gure artean ukan dituen zontak kargu, eta egin dituen zontak lan. Bainan bertze kongregazioe zontak ere galdegin izan dizkiote, Mañex zontak zerbitzu. Hala nola serora batzuk ukan duten gidari eta argitzaile beren konstituzioeak berritze eta egungotze lanean. Karia hortarát izana zen orai dela bi urte Ipar Ameriketara eta jaz Ingleterara.

Bainan nik uste Euskal Herrian ereman duen saila ere haundia izan dela eta aberatsa. Etxarriko eskolan emaila ezaguna eta estimatua zen. «Fededuna»k taldearekin ere egin zuen lan. Bere ikasketak psiko-soziologia eta talde-dinamikaz eginak zituenaz, aintz elkartek galdatu diote laguntza. Hoiien artean «Seaska»k. Amnesty-Internazional-eko partaide ere zen. Ikusten duzuten bezala, aita Mañex-ek hunkitzen zuen eremua eta zeraman ildo garrantzitsua edo inportantea zen.

«Mundu hau ez da bere hartan ona edo txarra»

Labur bada gure gorago erran dut noiz sartu zen aita Mañex frantxiskanoen familian. Eta uste dut merezi duela erraitea zer pentsatzen zuen bere fraide biaz. Edo hobeki erran, nola ikusten zuen berak fraide bizitza XX-aren mende hontan. Eta hori konprenitzeko iduritzen zaut hoberena dela bera ustea mintzaterat. Huna 1978-eko abotzuan, Donostian «Erlisio bizitzaren euskal aste» batetan zer zion fraide biaz:

«Luzaz gure erlijioso bizitza pentsatua eta ulertua izan da munduarekiko edo gizartearekiko trenkadura bat bezala. Erlisio bizitzaren lehen pausoa zen munduari, gizarteari... uko egitea Jainkoaren izenean, mundu hau zerbitzatzeko gure kongregazioeak edo gure ordenak planifikatu moldetan.

Elizak munduaz, gizarteaz zuen ikuspentsamoldea azken mende hautan, oso pesimista zen. Mundua, salbatu nahi duenarentzat, galgarria da eta beraz mundu honetarik urrundu behar da, ihes joan behar da... Eta, proiektzio moduan idealizatua ikusten da beste mundua, lurrekoak baino hobea bezala, ederragoa; baina oro har, oso abstraktoa, hezur-mamirik gabeta eta, gizonaren Esperantza hautsirik uzten duena.

Nik ez nuen konprenitzen zergatik zen hain maile nuen ondoko espazioa hastiagarria, ez nuen konprenitzen zergatik zen bizi nuen gizarte gaixtoa eta galgarria, eta ere zergatik salbatu behar nuen!

Bainan nere izpiritu kritikoa iratzartu zitzaizkidan hartu nintzen, mundu hau, gizarte hau, bere hartan hartuz, ez zela irakatsi zidaten bezain gaixtoa eta makurra! Haatik konturatu nintzen mundu hontan, gizarte hontan zapalduak eta zapatzailak bazirela, jende pobre eta jende aberatsak, jende baztertuak eta jende handikiak, jende langileak eta jende manatzailak... Eta ene problema larriena izan zen zein alderdi aukeratu nuen? Zalanztanik gabe aukeratu nuen sortzeak emana zautan alderdi; jende langilearen alderdi, herri zapaldu honen alderdi. Konturatu ere nintzen Ebanjelioa Probreen giza lurrean sortu zela eta Probreen giza lurrean mintzairan Hitzerratu zitzaigula. Nere fraide bizitza, kontzientzi hartze huneikin hasi nuen berpentsatzen eta berriro erekitzen.»

Eta aintzino gogo dio, Mañexek, Kontzilioak ere mundu honi, gizarte honi begi berri batzuekin nahi izan ziola behatu eta nolako segurantzia eta bozkarioa senditu zuen, Elizak eman urrats berrietan.

«Kontzilioak mundu honi, gizarte honi begi berriekin nahi izan dio behatu: mundu hau ez da bere hartan txarra edo ona, ez da bere hartan galbide bat edo zorionbide bat, salbade bat. Baina nola ere mundu hau gizon eta emazteek, jendalde eta herrialdeek... nola ere mundu hau hartzen, lantzen eta baliatzen duten, indibidualki eta kolektiboki, arabera bilakatzen da txarra edo ona, galbide bat edo zorionbide bat. Bestalde, Kontzilioak gaurko gizon guztiei, bereziki gogo oneko gizon guztiei, dei egiten die: mundu hau, gizarte hau, beren libertate erresposabilean gende onerako har, konpreni, landu, balia eta gida dezaten.»

Eta aita Mañexek Elizaren dinamika hontan ikusten du behar dugula fraideok lan egin eta ezur-mamitu gure fraide bizitza. Ikuspegi hortatik behatuta bakarrik, konpreni genezake bere azken urte hauetako borroka. Eta ikus molde hori gogoan hartuz bakarrik, konprenituko dugu ere bere obra idatzia.

Euskaltzale suharra, akademiako laguntzaile, olarki idazle...

Euskaltzale bete-betea izan da. Eta nik uste bere bihotzaren taupada edo pilpirik hoberenak Euskal Herriari eskaini dizkio. Eta Euskaltzaindiako akademiak haren lan ederra eskertzeko eta aintzina eginen zituenak akulatzeko, Euskaltzain urgazle edo laguntzaile hautatu zuen 1983-eko apirilaren 27-an.

Ba du anitz idatzirik, artikulua eta beste, hitz neurtuz eta prosaz. Bietan luma gozoa, atsegina eta aberatsa erakutsiz. Bere lan eta poesiak agertu izan ditu: Gure Herria eta Herrian; Gazte euskaldun gazteriak zuen aldizkarian. Elkar, Euzko Gogoa, Egan, Jakin, Olerti eta Maiatz ipar alde hontan agertzen den aldizkari berrian.

Ba ditu bi liburu argitaraturik: «Hinki-Hanka» 1978-an agertu zen poesi liburu, eta «Gauaren atzekaldean» 1982-an atera zen nobela.

Bere poesia batzu kantatuak ere izan dira: hala nola, «Sinesten dut» Peio ta Pantxoak kantatzen dutena. «Egia garesti dela» eta «Mundu Zabalerako» Gure-Bidea taldeak kantatua. Ortzekin taldeak ere erabili ohi zuen bere emankizunean Mañex-en poesia bat. Nekez ari, Garaziko taldeak kantatu ohi ditu bizpahiru poema...

Santos B.

IBARLA-tik



«Haren baitan bizitzaren pilpira eraki, haren inguruan eta urrunago ere»...

...Ixililik eta urririk, bere bizi guztia utzi dauku eta urratu ildo zabala idekirik gelditzen zauku.

Oroz gainetik Mañexek BIZIA senditu du odolean, plaza-gaiean, Herrian, lanean, familian, lagun eta ezagun guziren artean. Haren baitan bizitzaren pilpira eraki zen, haren inguruan eta urrunago ere... Izpiritu argi eta erne batez bete, agertzen da batez ere IDEKIA munduko mogimendu eta arazo guztiei. Hala nola bere izate guziarekin hurbildu ditu gizarte zapalduen minak eta herri langilearen kezak. Ondorioz, eraman dituen sailetan, gizon langilea eta borrokalaria ezagutu dugu.

Barne aberatsa eta emankorra, Mañex-en baitatik halako «segurantzia» eta bake bat nabaritzen zen; bakoitzaren mementoko kezka arintzen eta ezitzen zuen. Bihotz nasai horren ondoan, beti zordun gelditzen ginen...

Gehiago, gizon sentikor baten itxura gogoratzen zauku: gauzak, jendeak, gertakariak, egoerak... kaskoz eta razionalki hurbiltzea baino, intuitzioz senditzen eta bereganatzen zituen. Beharbada, gaitasun berezi hori laguntza bat izan zaio bere poesia eta idazlanetan.

Zorigailte, biziaren urruga gozoa goizegi utzi ukan behar duzu... Zure italtzeak gutan utzi kolpea eta zauria gatik, jarraikiko dugu, banaka eta elgarrekin, zuk hasi xenderatik...

Pekotxetik.

«Gure etxegibeleko haritza»

...Gure etxegibeleko haritza
Gure haur denborako josteta, irri eta nigarren

Lekuko ixila
Eta gure ametsen
Hazle emankorra
Gure eremua
Gure sor lekua
Nola ahanztiko diagu hire besoen segurantzia

Hire neurrien oparotasuna.

...Zeren
Egun batez
Beren gogoaren kontra
Eta gure bihotzaren kontra
Gure etxekoek
Ebaki hinduten
Eta erori hintzen
Ohorezki eta ixil-ixila
Erori hintzen lurrera.
Hiairekin eraman huen
Ohorezki eta ixil-ixila
Gure etxondoa sortu eta itzali
Belaunaldien historia luzeta
eta urratua!

Maiatz hontan, urteko sasoin ederrenean, aita Mañexek jingo zuen bere etxe ondora, sekulan ez eta, beti lanez itoa zelakoan, goxoki egoitara etxeko sukaldetan, iloba eta etxeko guziekin, pausatzera. Segur bazukeen beharra, behar haundia, nago haatik ez zen lanagan artzera heldu; bai zerbait berrien idatzera primadera hontan, gain gainetik maite zuen sort herrian...

... Mañex agertzen zauku begitarte algera, ardura irriho bat ezpainetan eta goxo goxuan egoiten zen. Denbora berean haatik, harritzeko zen nola arranguratu, nola gogo izpirituak kexu zituen mundu berri hontan iragaiten diren ixtorio guziekin, gizonaren, langilean eta populu zanpatuekin, euskaldunen dretxo zuzenak nola ostikatuak diren...

Gero Mañexetaz dutan orroitzapen lehena eta handienetarik: Ibarlar eta euskaldun seme zela. Ez zuen dudarik bereziki euskara dela gure hizkuntza, orotan aberatsena, goxoena, beroena. Euskaldunek beren baitan sendi dezaketene gosa eta egarri mota guziren barneko minen (erraiten zuen bezala), tripako minen agertzeko euskara gure mintzaira dela paregabea. Guztien lana da gure mintzairaren bizirik atxikitzea, begiratzu, zaindazu etsaietarik.

Nere orroitzapena ere da Aita Mañexek urte hastean lehen igande batez herriko elizan emaiten zuen meza familiarentzat eta herriar guztientzat. Oitoiz egiten ginen ahanztziak, baztertuak, lepradunak bezala beharretan direnentzat. Bere predikan Jesuskek jende xheha zuela ardura ondokit, eta huni kasu berezia egiten dion jende hune behar duela lagundu, gorago altxatu aintz aldiz merezi duen lekura. Zer trabak! Zontak etsai ez dira kausitzen lan hortan...

Helburu hortara heltzeko aita Mañexek parte hartzen zuen aintz batzordetan eta elkartetan. Mezatik landa biak egoiten ginen; idatz zituen bi liburak eman zautzidan igande horietan; So eta beha egoiten ginen herriko ikastetxeari, (Mañexek 9 urte eta nik 11 urte nintuelarik elgarrekin eskolan ibili ginen). Gero so eta so, apaezaren etxeari: «Eskola hetsia, berdin apez etxea. Erretoraren etxe hortan Eskual Kultur Etxe bat ez ote litaie egiten ahal» behin zautan erran...

Arnaud Harispu.

...Eta hark bazuen pazientzia. Erran nahi baita : barneko indarra.

«Euskadiko herri polit bat: Ibarla. Ibarla-ko etxalde tarro bat: Pekotxea. Eta Ibarla Pekotxeko sabaian — kasik mirakulu bat gertatu balitz bezala — antzerkia ikusi ahal izan dugu...

Sabai batetan antzerkia... ez duzue pentsatzen ahal zer atsegina, zer atsegin zoragarria egin didan horrelako gauza ximple baina zinez garbiak.

Haurzaro guztia gogora jin zait: amateki zena berriz eleketat entzun dut, aitaitxik gerlako itxorioak kondatu dizkit, aitak, kantuz, behiak deitzi ditu, amak aldiz, kafira xokoak ongi mialuz arraultzeak biltzen zituelarik... Belar eta soro usaina senditu dut eta bereziki, bereziki ohartu naiz sabai-ko harri zaharrak bizi zirela, bizi!»

Horra zer idazten nuen duela hiru urte «Xuri gorriak eta...» deitu antzerkia Oztibarreko taldeak eman zuelarik Ibarla Pekotxeko sabaian, hain xuxen Manex Erdozainzi-Etxart sortua zen etxeko sabaian.

Manex Erdozainzi Etxart antzerkizalea zen erotik, drama ala antzerki arina, berdin maite zituen. Nahiz ez den hor deus harritzekorik, olerkia eta antzerkia hain dira elgarri hurbil... Eta badakit, berak aipaturik, gogoan zeukala, egun horietarik batez, antzerki bat idaztea... Oztibarreko talde edo beste batentzat... Zorigaitzez...

Noiz, non et nola ezagutu nuen Manex Erdozainzi-Etxart? Xuxen, xuxen erraiteko, ez nakike. Aspaldi du segurik... Jakiteko, berari utziko diot hitza:

«Bat, biga, hiru... mila
izan dira
Nere bidean
Kurutzatu dituztanak:
Mintzatu gara
Ixtant bat
Soaz
Amodioa
Erraitearino!»

«Egunean egunekotik»

...Bekan bazen bekan
Baina behar zen hartan
Eskuak hutsak ginituela
Bihotza goibel
Eta goizeko izarrari begira
Bilduak gertatu garen hartan
Besarkada luzean
Gure bat izateak
Ez ote zuen bizia sortzen
Gaurko Euskal Herrian?
Gaurko munduan?

«Dolorezko izarrak!»

...Bizian han-harat noa: bizia daramat
egiaz!
Zein luze bizkitartean bakarrik
doanarentzat!
Bizia daramat bihotza ideal baten
jabe:
Goi-ideal batek hartu, sutu bainau
Nere bizitzearen azkorrian!

...Ideal horren suak berotu nau eta
botatu jendeen artera
Lekuko behar baitiotet agertu:
Argi bat ilunpeetan!
Amodio bat hertsuretan!
Guzien agerian eta entzunean
Guziek hunkia, erabilia, berdin
baliatua!

Baina,
Mundu bihurri hontan:
Nor da argi beharretan?
Nor
Amodio eskasian?

...

Horrela gertatu zitekeen gure artean ere eta inumixtante adiskidantza sano baten lehen lokarriak josi genituen. Gure soek, berehala, elgarren alderako amodioa, estimua, sortu zuten. Hain zen gizon, gizona. Itxuraz perestia, geldia, ona... eta barneaz, zinez bortitza... Ah! haren bihotza!

Bere olerkia, bere izaitearen pare agertzen digu... hitz guztiak pizatuak dira, lerro guztiak ba dute beren musika: Eguneroko hitzak erabiliz eta goi ametsetan sobera galdu gabe, Manex Erdozainzi-Etxartek, hala ere, lilluratsen gaitu. Badaki, behar den hitzaren ezartzen egoki den tokian. Poesia, pazientzia lan bat da. Eta hark ba zuen pazientzia. Erran nahi bait da: **barneko indarra...**

Poeta zelakoz eta antzerki-zalea, «Monzon saria» nori eskaintz jakiteko, galdatu nion jule izaitea. Nahiz oso lanpetua izan, gogotik onartu zuen eta ba dakit sekulako denbora pasa zuela antzerki bakoitzaren zilatzen eta piztzen. «Dabib Errege» pastoralaren aztertzeak, Biblia harturik, goizeko biak arte ari izan omen zen, bila eta bila, historiaren ikertzen eta konparatzen. Xehetasun hau bera nahikoa da ikusteko zer nolako funtsa zuen Manex Erdozainzi-Etxartek; zoin maite zuen lan ongi egin!

«Monzon saria» zela eta, nori eman trenkatzeak, Baionan elgarretaratut ginen eta segidan ados jarri «Zortzi ehun ahar» zela eskuan ginaukan antzerki hoberena.

Erabaki hori hartu ondoan, afari xume bat eginik, tira-ahala Biarritzera joan ginen... hain xuxen, antzerki bat ikustera. Gibelerakoan, antzerkiaren mamiaz solastatu ginen. Eta gero, berexetean, hitzeman genuen elgar maizago ikusi behar genuela. Beti horrela erraiten dugu... eta gero!!!

Daniel Landart,
Mugerren, 1984/V/6-an

«Errespetuz...»

Hostoak lehertu ditut
nere zangopetan kraskatu dira
eta ez zaizkit kexatu
hostoak lehertu ditut
metatuak dira urtetik urtera
eihartuak
lur axalean etzanak
zuhaizten itzapeetan
errespetuz lehertu ditut
eta mamiraino izirikra kraskatu dira
gainean luze-luzea etzan nintzelarik...
...
errespetuz lehertzen ditut
bihar edo etzi edo geroxago
beren ohantzean bilduko nauten
hosto ixilduak...

«Primadera bihotzean»

...Nik lehertu lehenik Primaderako
belar berdea
Nik hartu bordaldeko gune ordokian
Belarraren Primaderako lehen pereka
eztia
Eta ni goxatu nere bihotzean.

Nik hurrandu lehenik Primaderako
loretxoak
Nik bildu pentze handi erdian
Loretxoaren Primaderako lehen irria
Eta nik gorde nere bihotzean...

...Biziaren etorkin
Orain eskutan daukaten
Istant honen laburrean
Munduaren zabalean
Noa kantuz eta dantzatzen
Primadera bihotzean!...

Hortan du Manexek finkatzen eta oinarritzen bere abertzaletasuna eta bere unibertsaltasuna

Berarekin solastatzean, beti inpresionaturik gelditzen nintzen, bere baitarik, izerdia bezala, ateratzen zen bake ezti eta indartsuaz.

Laborari seme izana gatik, ttipi ttipitiki lurraren eta ingurumenaren aurkako borrokan hazia izana zen: «Hatzaparka lurrari» zuten bere etxekoek ateratzen egun guzietako ogia eta janaria.

Lur lantzeak, eskuak «egiten» dituen bezala, egin zuen ere bere funtsezko izaitea: lurrean zituen Manexek bere funtsezko oinarriak finkaturik, eta ez nun nahiko lurrean, bainan Euskal lurrean, beti «marruma eta hatzaparka» ariko baitzaio bere baitan euskara.

Manexen biziko lege nagusia eta bakarra izan da: izaitearen Errespetua, izaiteak hartzen ahal dituen bizi itxura guzietan.

Berak zinfonia haundi bat bezala ikusten du lurraren lurtatze mugimendu hori: erran nahi baita, musika nota bat bezala, harri bakoitxak, landare bakoitxak, kabela bakoitxak, gizon bakoitxak eta herri bakoitxak badutela beren lekua eta hartu behar dutela beren leku osoa, sinfonia hau desekilibratua atera ez dadien.

Eta zerbait gisaz edozein bizi itxura edo izaite itxurari ukatzen edo ttipitzen balin bazaio lekua, ekilibrio osoa da joa eta

hautsia gelditzen.

Beraz, zor zaigu bakoitxari borrokatzea gauza guztiak beren lekuan jartzeko, «gauza hauek beren neurri beteak har dezaten elgarren arteko harreman eta korrapiluen mugimenduak. Zeren neurri bete hori ez da hastetik eta behin betirako emana bainan «erdtzekoa», izerdiaren izerdiaz eta burrukaren burrukaz; egun guzietako gure urrats ttipienetan, bakoitxak gure «beherako lantegian» landu, xorroxtu eta mehatu behar duguna.


Gisa berean, bera eliz-gizon izana gatik ere, goraki salatuko du «farisaoen» elizaren jukutria.

Manexek agertzen daukun umiltasuna ez da burua apalik egotea, gain beheara hartzen ditugun kolpe guzien onartzea. Ez! Bainan biziaren espresio apaleneri erne egoitea eta bizi horren haunditzea trabatuko duten traba mota guzien borrokatzea.

Hortan du Manexek nere ustez finkatzen eta oinarritzen bere abertzaletasuna eta denbora berean bere unibertsaltasuna.

Zorizkarrez bere neurri beti pertsonala, osoa eman gabe joan zauku Manex bere sinfonia ez bururatua bezala utziz.

Peio Ospital



Joxe Azurmendia-rekin solasean Manexen poesiaz

Manexen poesian nola agertzen dela gizona iduritzen zaizu ?

Trintxera batetan imaginatu behar da gizona, beti gudukatzen bizi den gizona. Bere lagun gazteekin dago. Orain gaua da, denak ixilik. Aitzurrez eta palaz ebaki dute lurra, trintxeraren gerizatu dituzte soldadoek beren buruak, lurraren altzoan. Batzuk lo daude. Eguna argitu odurko berriz hasiko dira kanoeak eta obusak aurdikitzen, zarrastaka lurrak ta gizonak triskatzen.

Badira hor poesia eta filosofia berezia, Munduaren konprenitzeko moldeak. Nor zituen influentzia handienak ?

Teihsard de Chardinek, lehen Mundu Gerrako trintxera batetan ukurturik, ezin du lo hartu. Goiz alban, lohi eta bonba artean, ama lurra eta soldadoen tripa lehortuak nahastuko dira trintxeran, ez da bereziko gizona eta lurra. Lur eta haragi puskak, bat eginak euri eta odoletan. Masa bat eta bakarra. Eta Teihsardek, tragediaren su beltzetan dardaraz bera, lore berri bat bezala, gizona lurraren altzotik arrastoz deskubritzen du : horra lurraren umeen sortze etengabea, iturriak, landareak, xoriak, liliak, gizona. Beti ama lurrarekin bat egitera isuriak, mila koloretan, bizitza kosmikoaren ixuri aberats etengabea.

Sentimendu kosmiko hori da menturaz Manex-en poesian lehenik agertzen dena ?

Erdozainzik kosmo unibertsoaren barnean eta harekin bat-bat egina senditzen zuela gizakia, haren poesiaren irakurle guztiak ohartu dira. Laborari familia batean sortua, bizitza guztian munduan zehar ibili arren, hiriburu haundietan ere bere lurraren deia entzuten zuen barnean.

Orain kasik modan dago naturalismo edo panteismo hori poesian. (Kontua ez da sendimendua bera).

Egia erran, norbait poeta dela diogularik, izpiritu aments eta lanoetan daukala uste dugu ?

Sendimendu hori egiazko eta zinezkoa, guztiz pertsonala bihurtu duena, Manexen barne-barnerainoko zintzotasuna da. Manexen lurra, ez da lur abstraktu, teoriko bat, Manexi guztiari ama bezala agertu zaiona. Bere barneko lur berdea da. Ibar-lako zelai eta ordoki konkretuak dira, Eus-

kadiko abereen orroak eta xorien kantak dira. Erdozainzi izan den poetak eta psikologoak lur eta ur konkretu horien ume ikusi du Manex, ikusi du gizona. Sustrai horietan ernea zekien bere burua : euskal mendietako lur-kumea, euskalduna. Eta sustrai horiekiko poetarene ta psikologoaren leialtasun apala da Manexen mintzoan beti kolpatzen gaituena.

Lur eta gizonen eremu baketsu bat ihes bide izan zitekeen ?

Manex-ek, ez. Manexek ez du, mundu haundi abstraktuan, gure mundutxo kaskar kalapitari iheslekua eta oasi gozoa bilatu. Harantzat kosmoak ez du baretasun kabia esan nahi bakardadean, baina bizitzarene ta esperantzen arra-berritze betikoa, bizitzaren borroka.

Borroka hitz hori askotan heldu zitzaion ba ahora eta lumara ? Plazerra eta atsegina bezain usu kantatu ditu oinaze eta sufrimenduak.

Munduko edozein Verdun batetako trintxeretan ezagutu du Manexek bere gaur-egungo Euskal Herria, haragi guztietatik odola eta heriotza dariola. Iparraldeko gazteen langabezia, Hegoaldekoen hilketak eta gartzelak, euskararen hondamendia, Euskal Herriaren guruzbidea, mila puskatan puskaturiko sorterrria, bere izatearen erroak maskalduz eta galduz doakiguna gain beheara. Hori ere bazen Manexek sentitu duen bere barneko lurraren deia.

Poetak iraultzaile zintzoak izaten dira. Ez dute jasarten bihotz gabeko maitasunik ?

Ikusten zuen, ikusi : jendearen bere kontzientzia itzalia, sineskeria faltsu batez 1914-eko edo 1939-ko hildakoak ospatzen («morts pour quelle patrie» ?) ; fede zahar trankilean lokarturiko familia girixinoak, mezu berri baten berritasunetan irriskatzeak ikaratuegiak ; mogimendu gazte baten haize-bulkadak uzkurrago eta kontserbakioago bihurtu dituen etxeak, politika tradizionalen alferpera bilduta. «Bai, tristea da», erraten dutenak, hainbat bidegabekeriaren aitzinean, baina bake zaharra nahiago dutenak, honez gero bizitzak eskatzen duen borroka berria baino, denok lana etxean izateko, bakotxa bere etxean libre izateko.

Manex ez zen bere belaunaldiko jendekin kokatua, guziz maite zituen gazteak...

Gazte batzuk beren lurrari atxeki zaizkio jadanik. Hasi dira gazte batzuk bere izatearen erro lurtarrari eusteko borrokan. Trintxeretan dabilta. Manexen Euskal Herria, gaurko Euskal Herria, horixe da, nahi badugu eta ez badugu. Gaua da, bai. Gau beltza da. Manex frantziskanoak ez du maite borroka. Loreak bezala duke maite anaien arteko bakea. Egun batez, haatik, bere lurraren barne-dei hau ere entzun du, Manexek ez bait dio entzungor egin : «Gure historiaren memento larri-netarik bat duk gaur geure Herriarekin bizi duguna. Eta euskaldunetan nihork ez lezake memento honi huts egin behar : hemen trenkatuko duk euskal izatearen hil ala bizi arazoa.

Sinesten dut

Ikusten dituztan gauzak
senditzen dituztan gauzak
jastatzen dituztan gauzak...
ederra, gozoak, onak direla
sinesten dut.

Entzuten dituztan otsak
bereizten dituztan soinuak :
abereen garrasiak, gizarki ororen
mintzoak

kantatzen diren abestiak
biziaren mugimendu daldara izaki
orotan...
amiagarriak, atsegingarriak, pozgarriak
direla

sinesten dut.

Biziaren mugimendu ots desberdina
izaki eta gizaki guztien
hunkigarria, zoragarria, liluragarria
dela

sinesten dut.

Loreak loretze betean
fruituak fruitutze betean
zuhaitz eta harri eta burdin
lurraren lurtatze mugimendu daldaran
mendiak eta itsasoak
izaki eta gizaki guziak
izadiaren ekilibrio betean iraunen
dutenean...

sinesten dut
gizonaren zoriontze betean.

Esperantzak
gizon guztien
izerdiaren izerdiaz
burruken burrukaz
mundu berri bat
erdiko duenean...
sinesten dut
gizonaren zuzentasun betean
gizonaren askatasun betean
gizonaren amodio betean.

Loreen loretze betean
fruituen fruitutze betean
lurraren lurtatze mugimendu daldaran
izaki eta gizaki guziak
irautearen betean dantzatuko
direnean...

sinesten dut
hastapeneko, gaurko eta betirako
Amodio haren izenean
eta, berriz ere, deituko diot :
Biziaren Jaun Gokoa
hastapenetik betirakoa...

Sinesten dut.

Ahantzi nahi ditut etsipen kantuak
Herri zapaldu horren intziri-nigarrak
Taigabe daramagun burruka gogorak
Dakarzi berarekin hazi emankorrak...

Nik ez dut bizi nahi besoak mozturik
Bizangoak herrestan bizkarra hautsirik
Izar bati begira lagunak eginik
Esperantza kantatzen ez naiz asperturik !

Nola oihan mendiak berdin itsasoak
Musika xoragarriz diraden beteak
Lurdatzet berri baten indarki bultzadak
Daldaratuko ditu zeruko izarrak !

Mespretxu zapalkuntza kalapita haui
Herri ukatu baten morroi marka guzi
Dator Askatasuna hodeiak doatzi
Ager gaiten dantzara bihar edo etzi !

Ene bihotza lehertzean... Sinesten dut !

... Euskal Herriaren askapenean sinesten zuen. Horretarako ekinean eta borrokan ari direnek haren laguntza eta lankidetzazabalak eduki dituzte ; alor guztietan (sozialean, kulturazkoan, Elizarenean, bai eta politikoan ere) hortxe egon da Manex bere hitza eta bizitza eskainiz. Herri zapaldu eta ukatu honen sufrimendua salatu du, borroka agertu du, itxaropena kantatu du, askatasuna aldarrikatu du...

Orain dela hainbat urte, han Kontzilioaren ondoren, Iparraldeko kristau euskaldun multzo batek oinarriko elkarre bat sortu zuen, beren haurrak euskaraz fedean hazteko eta beren fedea euskaraz adieraz ahal izateko. **Fededunak** zuen izena elkarre. Euskara bazterturik zedukan Eliz hierarkiari aurrez aurre egin behar izan zion. Mugimendu zabala izan zen lehen urteetan, klase zapalduen eta herriaren borroketako kristauen atxekimendua eta ekintza bultzatu zuen ; gerora, joera kontserbakorrek gailendu ziren. Hasiera hartan Manex izan zen elkarrearen sortzaileetako eta eragileetako, horren aldizkaria argitaratuz...

Paulo Agirrebaltzategi.



Hegoaldetik, eta bihotzetik

Bi urtez bizi izan naiz Manexen ondoan, 1970-1972, Okzitaniako Tolosan. Eta geroztik, elkarrengandik fisikoki urrundu eta, hurbil ginen hainbat gauzatan.

Manex ez zen ekaitza, ez trumoi. Xirimiria, euri-lanbroa zen Manex. Ez zintuen lehen kolpean itsutzen, lilurtzen, harritzen, konkistatzen. Isila, lasaia, geldia, mantsoa, apala, protagonismoak gabe egoten dakien horietakoa zen gure Manex. Zenbat eta sakonago ezagutu, et hainbat eta gehiago maite zenuen. Xirimiria bezala, deus eta inor bortxatu gabe, sartzen zitzaizun Manex bihotz barnean, lehen eta ezti, emeki-emeki, goxo eta bigun.

Ez dut gogoan Manex ezagutu nueneko ez eguna, ez lekua. Oso gogoan eta bihotzean dut, aldiz, ezagutu nuen Manex, geroztik beti eta toki guztietan adiskide eta laugn eta anaia on. Ona, fidagarria, konfidantza osokoa, apala, bihotz zabala, liberala, ulertzen emana, juaizera ez zen ekarria... bai eta frantziskotar zintzoa eta suharra.

Joan Mari Torrealda



Manex adiskideari, ez adiorik !

...Manex eskaintza zen. Bere altxor preziatua besteengan husten zuen.

... Manexek ezagutu nuen lehen unetik sendotasuna, oreka komunikatu zizkidan. Gure oihanetako pago haundi eta lerdenean udako gorienean darioen freskura gozo eta ezea zen berea. Eta neguko hotz-idorrean behar gorrian aurkitzen zenarentzat berogarri eta altxagarri ere bazen. Baina kasu, izatearen edo edukitzearen alorrean gaude eta Manexen izaera agertzeko ez da aski. Manexen izaera osoki adierazi nahi bada beste alor batetara igaro behar da. Manex eskaintza zen. Deigarri gertatzen zen gizon harek aldian aldiko edozein ekintzetan osoki emateko zuen joera. Bere altxor preziatu oro besteengan husten zuen. Harengan ez zen inolako mugatzerik ageri. Berak bere alde-rik zeuden guzia eskaintzeko zuen. Eta etzirudien gehiegi preokupatzen zuenik besteengatik truke jaso zezakeenak. Mer-

kaduko legeetatik kanpoko eskaintza zen berea...

...Elgarrekin azkenekoz egon ginelarik aipatutako gaien berri emanen dut bere herritasun eta abertzaletasunaren lekuko. Hiru puntu nagusi erabili genituen. Lehena, Isidro Etxabe «Zumai»-ren gutun bat jaso zuela eta lorietan zegoen. Jakin ezak Isidro erantzun bat prestatzen ari zela, eta bihotz bihotzetik ateratzen zitziola. Maite hinduen, nola gainera! Bigarrena, Puerto de Santa Mariako presoek «Intxaur azal baten barruan» eta «Eguberri amarauna» izenez argitaratutako literatur lanaren eskuratzea izan zen. Hirugarrena, Egin egunkarian bostgarren orrialdean bere lankidetzat idazle bezala emateaz jardun ginen. Ados zegoen eta aste santuaren ondotik hasiko zela agindu zidan...

Jokin Apaletegi

Jose Arregui (español poliziak torturaz hil zuena), eta beste gure lagunei nigar orenen artetik.

Hire aurpegi alaia
 Hire abots kantaria
 Hire bertso dantzaria
 Herri hontako bazter-inguruetan
 Hire so garbi sarkorra
 Hire irri sano lasaia
 Hire esku-aire trebea
 Nola musean nola lanean
 Hire aurpegi kezkatia
 Ixil eta zimur
 Lagunen berriak jakitean
 Hire so eroria
 Ilun eta triste
 Lagunen heriotzak jakitean
 Itzulika eta itzulika
 Gela batetik bestera
 Sukar eta minbera
 Klandestinoko egun haietan...

Leihotik so
 Eta begira
 Ixil eta pentsati
 Leihotik han-harat
 Eguzkiari
 Ilargiari
 Lanoeri
 Goizetik arratserraino
 Eta gauean oraino
 Goibel eta triste
 Askatasunari
 Maitasunari
 Herriari
 Deika
 Eta ezinean
 Itzulika eta itzulika
 Gela batetik bestera
 Klandestinoko egun haietan...

Hire lagunekin
 Joan hintzelarik
 Hire lagunekin
 Mendiruntz
 Abiatu hintzelarik
 Negu hartako
 Arrasteri batez
 Bestaldi arte
 Erran ondoan
 Abiatu hintzelarik
 Hire begi bustiak
 Bideskan urruntzean
 Mendiruntz
 Klandestinoko arrasteri hartan...

Ez huen mundua harrotu nahi
 Ez huen mundua menperatu nahi
 Ez huen mundua zapaldu nahi
 Xoilki
 Askatasun handi baten gutzia
 Maitasun sakon baten desira
 Herri puskatu menperatu
 Eta zapaldu honentzat
 Amodioz
 Ez huen beste ametsik
 Beste asmo eta xederik
 Xoilki
 Eguzkiaren dirdaia
 Ilargiaren hezea
 Lanoen bustia
 Herri ebaki, xurgatu
 Eta zigortu honentzat
 Iraultzan
 Ez huen beste askatasunik
 Ez huen beste maitasunik
 Ez huen beste herritasunik...

Hire lagunekin
 Harrapatu hindutelarik
 Hire lagunekin
 Madrileko kale ertzean
 Tirokatu hindutelarik
 Otsaila hartako
 Egun batez
 Kartzelaratu hindutelarik
 Hire begi hantuak
 Kartzela zuloan
 Torturatu eta
 Beren errabian
 Erhaili hindutelarik
 Hire askatasunean
 Hire maitasunean
 Hire herritasunean
 Gorputzeraino
 Otsaila hartako kolpean...

Hire adin gordinean
 Herriak amultsuki eta
 Kexu
 Bifdu hinduen kartsuki eta
 Odoleraino nigarrez
 Hire Herri hezgaitzak
 Ehortzi hinduen
 Askatasunaren eta
 Maitasunaren
 Lurrean
 Eta biziko hintzen...

Gure askatasunean
 Gure maitasunean
 Gure herritasunean
 Gure adin gordinean !



«Herri honen errailetan»

Geure herriaren borroka, erdi-minak
 Geure herriaren borroka, erdi-minak
 gaur
 Aita-amen bihozakadak, zotinak, nigarrak
 Anaen karkailak, abestiak, irrintzinak,
 gaur
 Hasten gaituk kantatzen, dantzatzeko
 gudulariekin
 Ezin aspertuz, ezti ala azkar
 Polliki eta finki, polliki eta arin
 Aritzen gaituk orenak eta orenak
 plazaz-plaza
 Bizi den herri honen iraultza
 Hirur ehun mila harri xuriren artean
 mintzatzen
 dantzatzeko
 arin-arin
 agerian
 gaur
 hiru ehun mila hitz gogorren
 musika zoragarrian...
 Gaur eta gerorako
 Gaur eta betirako
 Utz gaitzazue libre
 Hirur ehun milako jendetze honentzat
 Hirur ehun mila harri xuriz
 Hirur ehun mila hitz gogorrez
 Herri zahar honen errailetatik
 Poeta den herri isildu honen
 Ipuia
 Sortzen...
 Gaur eta gerorako
 Gaur eta betirako
 Gaur eta betirako
 Utz gaitzazue libre.

«Euskadiko karrikak»

...Lili gorriak
 lili xuri ta beltzak
 lili perde ta horrailak
 askatasunaren margoak
 hasi ziren loretzen
 iraultzaren hildotzen
 Euskadiko karriketan !

«Herria izerditan»

Gure mendiak
 Larreak
 Oihanak
 Ixildu
 Dira !
 BAINA
 Ibarrek inarrosi dira
 Xenderak, bideskak eta karrikak
 Ireki
 Sabaia, sotoak, ostatuak eta plazak
 Ikaratu

EUSKAL HERRIA

Betan
 Xutik
 Agertu
 Delarik
 Eta
 Mintzatu
 Oroetan.

«Mintza hakigu»

...Dailu baten puntan
 Martellu baten joan
 Traktur baten burrunban
 Harma baten tiran...
 eta erran-ezadak
 erran-ezaguk
 batzu
 nolaz diren lanetik eskapatu
 nolaz diren itzalpean ttottotu
 eta etzan...
 eta nolaz diren nagusi eta
 manatzaleen lerroan
 jatzarri
 erran-ezadak
 erran-ezaguk
 GURE BURRUKAK EZ DEZAN UKA
 SUNTSI ETA GAL
 HIK EGUNERO PAIRATZEN DUKANA.

«Askatasunaren amets zohardia»

Oi gau zohardia nere begien ametsa
 Eta larrazkeneko haize epelaren hunkia
 Soin hegieatik bizkarrean behera
 Eta iguzkiaren beroa nere aurpegi
 bustian...
 Joango naizelarik bidez-bide eta
 karrikaz-karrika
 Nere herri langilearen urratsean
 Nere herri langilearen bihotzean
 Nere herri langilearen errailetan...
 Hasiko naizelaik kantan eta dantzan
 Nere herri langilearen plazetan...
 Oi gau zohardia nere begien ametsa !
 Nere bihotzeko ametsa !



Manex

zure ehortz egunean,

Gure bihotzean utzi zenuen
hutsaren betetzeko
ardo gorritik edan genuen,
odola bezain gorri eta bizi
den edari horrek

negarrak urtu
hedoiak elurtu
haragiak hezurtu
zizkigun,

Donapaleuko ostatu batean,
zure irri zabala aipatu genuen,
hurrupa bakoitzean orroitu ginen :
hinki hanka, gauaren atzekaldek,
hitz piztuak
ele mamitsuak
zure idurikoak
ekartzen zenituen ;
hurrupa bakoitzean genion
etzelina besteak diren bezalako
horma jujatzale ezin gaidituzkoa,
dretxoak duten madarikatu haletarik
etzelina genion,
eta pena genuen
eta pena...

Bertsolariek kantatu zuten
gure aldetik aingeru bat
zerura joan zitzaigula,
guk, erraten genuen,
bere neurri handiengan luzatu
gizona
lur bekaiztiak ebatsi zigula,
eta pena genuen
eta pena...

Donapaleuko fraile Frantxiskotarren elizan
herri honen erraiaetan hiru botzetan sufitzen
zuten guziak ziren etorri,
zuri, beren lehen agurra eskaintzeko.
"Nik ez dut bizi nahi eskuak loturik"
zinion herria izerditan zagola ;

eta gu hemen gaudenak
gure kateetaz ongi baliatzen gara,
egunero berriak sortuz, berriak,
pena genuen,
pena...

Basoa hutsa ikustearekin
ni, orroitu nintzen nola
duela urte asko jadanik
gurea den poesiaz mintzatzeko
Arestiren hitzak komentatuz,
Rafortoeneko subazter berotuan
tripota erreka jan genituen,
eta pena dut,
eta pena...

Denbora etsaiaren aurka
zintzotasuna bilatu dut,
oraindik
umezurtz senditzen duket
nere buru herbaila !

Uste badute poesia solas ederra dela,
ez badakite haragi arteko bihotza
iraultzen duen min segitzalea dela
besteak ez dira poetak,
urrunago, beti, joateko biderik ez dizute irekitzen,
ez dute nehoen baitan esperantzarik ezartzen,
berak direlakoan naski
hautatuak
herriaren salbatzeko
euskararen indartzeko...

Manex, zure ehortz egunean
ardo gorritik edan genuen
eta pena,
pena ixila,
eta pena...

Hemen doatzi Manex-en heriotzearen ondotik, handik eta hemendik, kasetara hartu ditugun lekukotasunak eta orroitzapenak.

Manexi begira...

Azken bi urte hauetan Manexekin, biltzar
batzu egin genituen, ohartu ginen erres-
petu handi bat ekartzen zuela gure hau-
tuari eta bizieri, bizitzan genuena artoski
eta goxoki begiratzen zuen.

Bere zigarreta egiten zuenean, tabako
purrukkak, orialde mehe batean emanez
eta iduriz beti erritmo berean biltzen eta
mihi milika bat eman ondoren, esku ziloan
eginikako zigarreta, ezpainetan pausatuta
pizten... iduri zuen denak izartzen zituela,
hatsa, jestuak, eleak.

... Manexetaz zerbait erraiteko, nahi
izan duela jende xumeen, langileen eta
herriaren askatze bidearen, bide laguna...
«Kalda gaitzean ari zituan harri xuriak pi-
katzen, arnas kolpeka izerdi trenpan eus-
kara hitzak limatzen... Burdin beltzaren
golde gogorraz lur lehortsu hau iraultzen ;
Herri agortu honen erraiak has zitezen
ernaltzen...»

Hire bizi, joko, aberats huntan, hordago
egin didak eta nik altxatzen diat parioa,
kanta erranez...

Jean Louis Caussade

Primadera kanbiakorra

Zeru gaina garbi, iguzkia bero, primadera
ezinago eder lore mota guztiez apaindurik,
xori kantu xarmegarriez alegatua.

Eta zanpa, huna berri latza !

Bere uda betean, Mañex-ek utzi gaitu.
Iguzki beroa ere joan da. Ordainez la-
rrazkeneko aize samina berriz etorri da.

Euskaltzale guztiek, sendi dute egun, beren
bihotzetan negua.

Denendako egiazko gizon baten joaitea,

bihotz min zorrotza.

Gizonak hiltzen dira, esperantza ez.
Berrikitan lurpetu Aita Duval, beste poeta
handi batek, zion bezala : «Hil-hobi bako-
txaren gainean, mila lore dira sortuko...»

Euskal-Herrian ere dira, idazle, poeta,
bertsulariak milaka sortuko. Mañex-ek bai-
titu denak zerutik zainduko.

Euskadiren primadera baita berriz eto-
rriko.

JA I ALAI



Izar baten itzaltzea...

Goi-munduko bakerat doatzen bidexka,
Xendera ta orga-hatz, baita itzulika,
Sasi lapar artean, zilo ta trebeska,
Kasu emanez beti, ez hadin trebuka,
Ibili ta, atxikiz zuzentasun kezka,
Azken urratsek hautu joan hinki hanka...

Olerkari Euskaldun, urgulurik gabe
Hitzak erabil bainan, ikurraren jabe,
Sekulan ez izanik egiaz herabe,
Gogora, erran, idatz, elhez hintzan trebe.
Ez dezatan irriska, ifernuko labe,
Bertsuz baitet opatzen, bakezko aterbe !

Euskal Herri gaixoa, goibela sarkorra,
Otsaila arras gabe, itzaildu izarra,
Euskaltzale su-pizlek ginuen pindarra.
Hala zauritu eta, bihotza minkorra,
Trixe nago, kantatuz, eskuan kitarra,
Olerki huntan, hiri, nerfazen agurra...

Oihantto 84.05.01

Amikuzeko Gau-Eskola orroitu da
1976-tik 1978-ra Manexek egin lanaz,
Gau-Eskolen muntatzen, eta egiten, eta
eragiten.
Eta ez bakarrik Donapaleun,
bainan Donibane Garazin ere.
Bi hitzok geldi ditela gure ezagutzaren
eta eskerronaren ezagugarri.

Amikuzeko (eta Oztibarreko)
GAU ESKOLAK

Denbora bat negar Denbora bat sortze

Manex Erdozainzi Etxarti eskaintzen diot bertso eta marrazki hauk, ta
denbora bat ixiltasun galdatzen.

Haren nigarrek,
ta izerdiek,
lur lehorrari,
ura dio utzi.
Haren odolak,
baita bihotzak,
gure Euskadi,
du arras hazi.
Gure bihotzean,
barne barnean,
haren gogoa da lotzen.

Lore guziak
neguan hiltzen
baina ekiak,
ditu arrasortzen.
Denbora beti,
ari pasatzen.
Ibaia ono
luzaz ibiltzen.
Airtuz gero,
uretik eurira
da bilakatzen.
Horiek dira
beti berriz hasten.
Beraz biziak
ez du mugarik.

Loreak bezala,
ibaia bezala,
zure gogoaz,
zure ahoaz,
zure buruaz,
zure helburuaz,
betidanik,
bihotza dugu beterik.
Mendiz mende,
eta mende mende,
haurrez haur,
Gurekin zira bihar ta gaur.

Joseba, 12 urte.

